




AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA



IRAURGI
lantzen
garapen agentzia
agencia de desarrollo



Azpeitiko Udala

EKINTZAILETASUNA SUSTATUZ, -BEREZIKI GIZARTE-EKONOMIAN ETA IZAERA ESTRATEGIKOA EDO BERRITZAILEA DUTEN JARDUERATAN ENPLEGUAREN SORRERA BULTZATZEKO- DIRU-LAGUNTZEN KUDEAKETA ETA FINANTAZIOA ARAUTUKO DITUEN LANKIDETZA-HITZARMENA

Azkoitian, 2015eko abenduaren 10ean

BILDURIK

ENeko ETXEBERRIA BEREZIARTUA jauna, Azpeitiko Udaleko Alkate-Lehendakaria.

ANA AZKOITIA URTEAGA andrea, Azkoitiko Udaleko Lehen Alkateordea.

JAVIER ZUBIZARRETA ZUBIZARRETA jauna, Iraurgi Lantzen, S.A. baltzuko Lehendakaria.

Egintza honetan fede ematen du Begoña Garmendia Vazquez, Azkoitiako udaleko Idazkariak

ESKU HARTU DUTE

ENeko ETXEBERRIA BEREZIARTUA jaunak, bere jarduneko kargua betez, Azpeitiko udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, udalbatza plenoak 2015eko azaroaren 3an hartutako ebazpenaren arabera. Aipatu erabakiaren ziurtagiria eransten zaio hitzarmen honi 1. dokumentu gisa.

ANA AZKOITIA URTEAGA andreak, bere jarduneko kargua betez, Azkoitiko udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, udalbatza plenoak 2015eko azaroaren 25ean hartutako ebazpenaren arabera. Aipatu erabakiaren ziurtagiria eransten zaio hitzarmen honi 2. dokumentu gisa.

JAVIER ZUBIZARRETA ZUBIZARRETA jaunak, bere jarduneko kargua betez eta Iraurgi Lantzen, S.A. baltzuaren izenean eta hura ordezkatzuz.

Honenbestez, elkar behartzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, honako aurrerakinak azalduz.

AURREKARIAK

LEHENA. Azkoitia eta Azpeitiko udaleko ordezkariak, 1.988ko ekainaren 24an, Iraurgi Lantzen Baltzu Anonimoa eratzeke eskritura publikoa izenpetu zuten, besteak beste honako xedearekin: *La sociedad es de duración indefinida y tiene por objeto la*



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

IRAURGI
lantzen

ADMINISTRATZIO AGENTZIA
agencia de desarrollo



Azpeitiko Udala

realización de cuantas actuaciones sean de interés para el fomento y la promoción del Urola Medio y sus municipios de Azkoitia y Azpeitia; podrá llevar a efecto promociones empresariales, de negocios, experimentales y de investigación, así como actividades mercantiles y negociación de contratos, fomento de instituciones de investigación y desarrollo tecnológico y en definitiva, la gestión de cuantos asuntos tengan interés directo o indirecto para dicha zona. Era honetan, bi udal hauei dagozkien sustapen ekonomikoko eta enpleguko eskumenak, kapital publikoz osaturiko baltzu anonimo honen bidez garatu dituzte, aipatu datatik aurrera.

BIGARRENA. Urola erdiko eskualdean egoera ekonomikoak orokorrean okertze nabarmena izan du azken urteotan, eta langabezia igo egin da. Krisi ekonomikoaren eraginez, pertsona eta familien errenta eta kontsumo ahalmena murriztu egin dira eta pobrezioa areagotu egin da.

Egoera horren aurrean, Iraurgi Lantzen, S.A. LANBIDE eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean ari da, administrazio hauek onartuak dituzten baliabide eta plangintzak exekutatu. Krisi garai honetan, gainera, aurrerapauso bat ematea nahi da, eta aipatutako administrazioek duten eskumena osatuz, eta kontuan izanik enpleguaren sorkuntza ekarriko duten ekimenak eta jarduerak herrien onurakoak eta giza interesekoak direla, Iraurgi Lantzen S.A.-k bere 2015eko aurrekontu baliabideen esparruan diru-laguntza lerro bat onartu du Azpeitiko eta Azkoitiko herrietan enpleguaren sorrera bultzatzeko eta ekintzailetasuna sustatzeko.

Iraurgi Lantzeneko Administrazio Kontseiluak **2014ko abenduaren 19an eta 2015eko martxoaren 10ean** egindako bileretan, ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte-ekonomian eta izaera estragikoa edo berritzailea duten jardueratan, enpleguaren sorrera bultzatzeko diru-laguntza lerroaren ildo nagusiak onartu zituen, eta baita ekimen honetarako gastua zehaztu ere; 150.000 €, hain zuzen ere.

Bilera horietan zehaztutako ildo nagusiak kontuan izanik, laguntzen oinarri orokorrak eta bereziak osatu ziren, laguntza horiek jasotzeko ekintzaileak bete behar dituzten gutxieneko baldintzak bertan xedatu zirelarik. Bere aldetik, oinarrien bidez, Iraurgi Lantzen SA-k aurkez daitezkeen eskaerei erantzuteko jarraitu beharreko prozedura arautu zuen, eta baita diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko irizpideak aitortu ere. Modu honetan, Diru-laguntzak arautzen duen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak bere baitan jasotako berdintasun, publikitate eta gardentasun printzipioak bermatu dira.

HIRUGARRENA.- Esandako guztia kontutan harturik, Iraurgi Lantzen S.A.ren Administrazio Kontseiluak, 2015eko martxoaren 10ean egindako bilkuran, Lehendakariak egindako proposamena onartuz, honako hau erabaki zuen:


- 1.- Ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA



IRAURGI
lantzen
garapen agentzia
agencia de desarrollo



Azpeitiko Udala

edo berritzailea duten jardueratan, enpleguaren sorrera bultzatzeko diru-laguntzak eskatu eta jasotzeko OINARRI ARAUTZAILE OROKORRAK ETA BEREZIAK onartzea (ERANSKIN moduan jaso dira).

Diru-laguntzak arautzen duen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak xedaturikoarekin bat, diru-laguntza programa eta horretarako ireki den espedientea jendaurrean jarriko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Iraurgi Lantzen, S.A. ren iragarki oholean eta web orrian 30 laneguneko epean argitaratuko direlarik.

2.- Diru-laguntza programa honetarako 150.000 €ko gastua onartzea, horretarako jarraitu behar diren neurri ekonomikoak bideratuz.

3.- Erabaki honen berri Iraurgi Lantzen, S.A. ko Administrazio kontseiluari emango zaio, honek ospatzen duen lehen bileran, hartutako erabakia berrestu dezan.


4.- Erabakiaren berri, modu berean, interesatuak diren Azkoitiko eta Azpeitiko Udalei ere jakinaraziko zaie.

LAUGARRENA.- Aurreko paragrafoetan deskribaturiko egoera kontutan hartuta, Azpeitia eta Azkoitiko udalek ez-ohiko diru-ekarpena egitea adostu dute, Iraurgi Lantzen, S.A. k onarturiko diru laguntzak, dokumentu honetan jasotakoak, finantzatzeko xedez.

BOSGARRENA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua, besteak beste, udal eskumeneko zerbitzuak emateko, Toki Administrazioa eta gainontzeko Administrazioen arteko lankidetzak ekonomikoa, teknikoa, eta administratiboa arautzen du. Lankidetzak hori, dagokion administrazio-hitzarmen edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6. artikulua, Lankidetzak hitzarmenak arautzen ditu, honakoaren arabera:

- Lankidetzak hitzarmenek erakunde bakoitzaren eskumeneren eremua errespetatuko dute.
- Hitzarmenak, honako hauek zehaztuko ditu: hitzarmena izenpetzen duten organoek eta beraien gaitasun juridikoa; administrazio bakoitzaren eskumena; finantza-bideak; betetzeko adostu diren ekintzak; kudeaketarako antolakunderik behar den ala ez; hitzarmenaren indarraldia eta amaitzeko iraupenaz bestelako arrazoiak.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

IRAURGI
lantzen

ZARAGOZ. ERROIZIA
agencia de desarrollo



Azpeitiko Udala

- Hitzarmena zaintzeko eta kontrolatzeko organo mistoa eratuz gero, berak hartuko ditu beharrezkoak diren erabakiak hitzarmena interpretatzeko eta betetzeko.

Azpeitia eta Azkoitiko udaletako zerbitzu juridiko eta ekonomikoek hitzarmen honen aldeko iritzia azaldu dute.

Aipatutako aurrekariak kontuan hartuta, agertutakoek, ondorengo LANKIDETZA HITZARMEN hau adostu dute, jarraian zehazten diren estipulazioen arabera:

ESTIPULAZIOAK

LEHENA.- Ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueratan, enpleguaren sorrera bultzatzeko Iraurgi Lantzen S.A.ren Administrazio Kontseiluak, 2014ko abenduaren 19an eta 2015eko martxoaren 10ean onarturiko diru-laguntzen oinarriak, orokorrak zein berariazko izaera dutenak, Azpeitia eta Azkoitiko udalek berresten dituzte.

BIGARRENA.- Diru-laguntza horien kudeaketa eta esleipena Iraurgi Lantzen, S.A.ren organoek gauzatuko dute.


HIRUGARRENA.- Aipatu diru laguntzen finantzazioa, Azpeitia eta Azkoitiko udalek bere gain hartuko dute. Era honetan, udal bakoitzak 75.000 €.ko diru-ekarpena egingo dio Iraurgi Lantzen S.A.ri, hitzarmen hau izenpetzen den biharamunetik hamabost eguneko epean.

LAUGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia izenpetzen den unean hasi, eta 2016ko otsailaren 29an amaituko da. Epe honetan, alderdi bakoitzak ondoko hauek beteko ditu:


- Azpeitiko eta Azkoitiko udalek gauzatuko dute bakoitzari dagokion ekarpen ekonomikoa aurreko klausulan xedaturiko epean.
- Iraurgi Lantzen, S.A.k, emandako diru-laguntzei buruzko txostena aurkeztuko die udalei, 2016ko urtarrilaren 20a baino lehenago, ondoko hauek zehaztuko dituelarik: finantzaturiko proiektuen xedeak, onuradunak, laguntza bakoitzaren kopurua, proiektuen iraupena, eta, orokorrean, finantzaturiko jarduerak eta erabilitako diru kopuru orokorra.
- Udal bakoitzak 10 eguneko epea izango du informazio osagarria eskatu edo iradokizunak formulatzeko. Kasu horretan, baltzuak 15 eguneko epean erantzungo du.
- Desadostasunak egongo balira hitzarmenaren interpretazioan, bi udaletako Alkateek izango dute ahalmena erabakiak hartzeko.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA



IRAURGI
lantzen
garapen-eragileak
agencia de desarrollo



Azpeitiko Udala

BOSGARRENA.- Iraurgi Lantzen, S.A.k ematen dituen diru-laguntzen kudeaketa eta esleipenean, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean (EAO, 2003-11-18koa) eta Lege hori garatzeko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Arautegian xedaturikoa kontutan hartuko ditu.

SEIGARRENA.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta bere interpretazio eta garapenerako zuzenbide-administrazioko antolamendura joko da, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa berariaz beteta.

Ados daudela frogatzeko, parte hartzaileek hitzarmen honen lau ale sinatzen dituzte idazpuruan adierazi den lekuan eta egunean.



Eneko Etxeberria Berezartua jauna

Ana Azkoitia Urteaga andrea

Javier Zubizarreta Zubizarreta jauna



Nire aurrean: Begoña Garmendia Vazquez A.

